




ISEI - IVEI

Rs5. ESKOLA-UZTE GOIZTIARRA





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: Ekaina 2010

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84 info@isei-
ivei.net - www.isei-ivei.net

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



ESKOLA UZTEAREN EHUNEKOA IKASKETA MAILARIK ALTUENA DBHKO TITULUA (CINE 2) DUEN ETA ONDORENGO IRAKASKUNTZARIK EDO PRESTAKUNTZARIK¹ JASOTZEN EZ DUEN 18-24 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN ARTEAN.

Europar Batasunaren helburua 2010. urterako: Ikasketa mailarik altuena Bigarren Hezkuntzako lehen etapa (CINE 2) duen eta inolako irakaskuntzarik edo prestakuntzarik jasotzen ez duen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa % 10 baino gutxiago izatea.

Eskola uztearen tasa betidanik izan da oinarrizko kezka bat europar hezkuntza politiketan, prestakuntza ezinbesteko faktorea delako garapen iraunkorra eta gizarte-kohesio handiagoa bermatzen dituen eta ezagutzan oinarritzen den hazkunde ekonomikoaren eredu bat lortzeko.

Europako hezkuntza eta prestakuntza sistemen aurrerapena kontrolatzeko, Europako Kontseiluak 2002an erreferentzia-puntu batzuk finkatu zituen, eta haien arteko bat eskola uzte goiztiarraren tasa 2010erako % 10etik behera murriztea izan zen.

2010erako eskola uzte goiztiarraren murrizpena neurtzeko, Batzordeak helburu bat finkatu zuen: ikasketa mailarik altuena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (CINE 2) duen eta inkestaren aurreko lau asteetan inolako irakaskuntzarik edo prestakuntzarik ez dutela jaso dioen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa % 10 baino gutxiago izatea. Helburua, azken batean, adin tarte horretako gazteek beren prestakuntza jarrai dezaten sustatzea da, irakaskuntza arautuan (derrigorrezkoaren ondokoa) edo Hezkuntza Sistematik kanpoko beste edozein motako prestakuntzan, eta, horrekin batera, biztanleriaren parte bat ezagutzaren gizartetik kanpo eta gizarte-bazterketaren arriskupean gera ez dadin sustatzea.

Azken urteotan adierazle honek zenbait aldaketa izan ditu bere definizioan eta metodologian. Gaur egun EUROSTATek erabiltzen duen metodologia erabiltzen da eta datu bilketa EPA-2005 metodologiaren bidez egiten da. Metodologia horrek 4 hiruhilabeteetako batez bestekoa hartzen du kontuan eta, baita ere, inkestaren aurreko 4 asteetan *ikasketa arauturik zein ez-arauturik egin ez duen biztanleria*. Adierazle honetan aurkezten diren segida guztiak EPA-2005 metodologiarekin birkalkulatu dira.

Adierazle honen bilakaerak europar herrialdeetan beheranzko joera duen arren, kontutan hartu behar da finkatutako helburua benetan handizalea dela, 2008rako datua (% 14,9) 2010ean lortu nahi den % 10etik oso urrun baitago. 2008an 27 europar herrialdeetako seik bakarrik bete zuten aurreikusitako helburua. Oro har, eta datuek herrialde gehienetan gorabeherak izaten dituzten arren, azken bost urteotako aldaketa begiratzen badugu, 10 herrialdek handitu dute beren eskola uzte goiztiarraren ehunekoa. Igoerarik handiena izan duen herrialdea (4,9 puntu) Erresuma Batua izan da, bigarrena Danimarka (2,7 puntu) eta hirugarrena Suedia (1,9 puntu). Igoerarik txikiena (0,1 puntu) Greziak izan du. Euskadik 1,3 puntuko igoera izan du.

¹Prestakuntza bezala edozein motako (arautu zein arautu gabeko) ikaskuntzarekin erlazionatutako edozein jarduerari hartzen da.



Euskadin, eskola uzte goiztiarraren tasa 2000-2008 aldian ez da aldatu, eta beraz pentsa liteke 2010erako EBk finkatutako helburua ez dela beteko, ezta emakumeen kasuan ere, tasa kasu horretan beti % 10ean mantendu edo azpitik egon den arren. 2008an ikasketak bukatu gabe utzi zituzten emakumeen ehunekoa % 11,2 izan zen. Gizonen kasuan, 2000. urtean uzte goiztiarraren tasa % 19,8 izan zen; 2008an % 18,1era jaitsi zen.

Espainiako batez bestekoa (% 31,9) altuenetan hirugarrena da Europar Batasuneko 27 herrialdeen artean, Portugalekoaren (% 35,4) eta Maltakoaren (% 39,0) atzetik. Beraz, ahalegin handia egin beharko da europar helburua betetzeko, helburu hori 2020rako % 10ean mantentzen baita.

2004-2008 aldian, 17 Autonomia Erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien artean bederatzik eskola uzte goiztiarraren tasa handitu egin dute eta beste bederatzitan, berriz, jaitsi egin da. Tasaren jaitsierarik handienak Asturiasen (6,6 puntu) eta Extremaduran (6,1 puntu) izan dira, eta tasaren igogerarik handienak Gaztela eta Leonen (2,7 puntu), Errioxan (2,2 puntu) eta Aragoian (2,1 puntu).

2008. urtean 18-24 urte bitartekoen artean eskola uzte goiztiarraren tasarik txikiena (% 14,7) izan duen erkidegoa Euskadi izan da, bigarrena Nafarroa (% 19,2) eta hirugarrena Asturias (% 19,7). Eskola uzte goiztiarraren tasarik handiena izan duten erkidegoak Balear Uharteak (% 43,2), Ceuta eta Melilla (% 42,1) eta Murtzia (% 41,0).

Sexuaren aldagaiak oso datu argigarriak eskaintzen ditu. 2008. urtean herrialde guztietan, Bulgarian eta Errumanian izan ezik, gizonek emakumeek baino hein handiagoan utzi dituzte ikasketak bukatu gabe. Zipren, Espainian, Estonian, Letonian eta Portugalen bi multzo horien arteko aldea 10 puntu ingurukoa da, hots, gizonen artean tasa handiagoa da.

Euskadiren kasuan ere bi sexuen arteko aldea handia da: eskola uzte goiztiarraren tasa mutilen artean nesken artean baino 6,9 puntu handiagoa da. Aldea aurreko urtekoa baino txikiagoa bada ere, aldea ikasketak uzten dituzten emakumeen tasa handitu izanaren ondorioa da mutilen arteko tasaren jaitsieraren ondorioa baino. Autonomia erkidegoetan, sexuen arteko aldea Ceuta eta Melillako 3,9 puntuetatik Kanarietako 19 puntura doa.




Rs5.1 taula eta grafikoa:

Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketak garaia baino lehen utzi dituen 18-24 urte bitarteko populazioaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera.

| Urtea | Guztira | Gizonezkoak | Emakumezkoak |
|-------|---------|-------------|--------------|
| 2000 | 14,7 | 19,8 | 9,5 |
| 2001 | 14,7 | 20,1 | 9,0 |
| 2002 | 13,2 | 17,0 | 9,3 |
| 2003 | 15,8 | 20,3 | 10,9 |
| 2004 | 13,4 | 18,2 | 8,4 |
| 2005 | 14,5 | 18,7 | 9,9 |
| 2006 | 14,5 | 19,5 | 9,4 |
| 2007 | 14,3 | 18,5 | 10,0 |
| 2008 | 14,7 | 18,1 | 11,2 |

Oharra: Serie osoa EPA-2005 metodologiarekin kalkulatu da.



Iturria: INE. EPA-2005 metodologia, eta urteko hiruhilabeteetako batez besteko datuak.



Rs5.2 taula:

Autonomia Erkidegoetan ikasketak garaia baino lehen utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera.


| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 |
|-------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| GUZTIRA | 29,1 | 29,7 | 30,7 | 31,6 | 32,0 | 30,8 | 30,5 | 31,0 | 31,9 |
| Andaluzia | 35,5 | 35,3 | 36,8 | 38,2 | 39,2 | 37,9 | 38,1 | 37,3 | 38,5 |
| Aragoi | 21,9 | 20,8 | 27,0 | 24,0 | 23,5 | 23,0 | 26,0 | 26,0 | 25,6 |
| Asturias | 21,8 | 19,8 | 22,4 | 28,6 | 26,3 | 20,1 | 23,2 | 22,5 | 19,7 |
| Balear Uharteak | 42,0 | 40,7 | 40,3 | 41,4 | 42,5 | 39,3 | 36,5 | 43,1 | 43,2 |
| Ceuta eta Melilla | 37,5 | 32,2 | 36,1 | 40,8 | 41,3 | 44,4 | 47,0 | 49,2 | 42,1 |
| Errioxa | 26,1 | 27,0 | 27,3 | 34,7 | 35,0 | 29,0 | 27,1 | 30,3 | 37,2 |
| Euskadi | 14,7 | 14,7 | 13,2 | 15,8 | 13,4 | 14,5 | 14,5 | 14,3 | 14,7 |
| Extremadura | 41,0 | 37,9 | 38,2 | 36,9 | 39,7 | 37,0 | 35,9 | 34,3 | 33,6 |
| Galizia | 29,2 | 27,5 | 26,9 | 25,0 | 24,3 | 23,0 | 24,9 | 23,9 | 24,1 |
| Gaztela eta Leon | 21,6 | 22,9 | 22,8 | 24,4 | 23,3 | 25,7 | 23,8 | 23,5 | 26,0 |
| Gaztela-Mantxa | 35,8 | 36,4 | 36,5 | 36,2 | 37,0 | 36,5 | 38,6 | 37,2 | 38,1 |
| Kanariak | 34,1 | 36,9 | 33,0 | 32,7 | 33,5 | 30,5 | 34,5 | 36,3 | 34,1 |
| Kantabria | 22,8 | 24,2 | 26,2 | 29,1 | 26,3 | 21,8 | 23,6 | 25,3 | 22,8 |
| Katalunia | 29,1 | 30,1 | 31,2 | 33,9 | 34,0 | 33,1 | 28,6 | 31,6 | 33,2 |
| Madril (Erkidegoa) | 19,6 | 20,8 | 23,7 | 22,6 | 25,4 | 26,0 | 26,0 | 25,8 | 26,9 |
| Murtzia | 39,2 | 37,7 | 38,7 | 42,0 | 42,8 | 39,4 | 38,7 | 39,6 | 41,0 |
| Nafarroa (F. Erkidegoa) | 16,4 | 17,9 | 21,6 | 20,8 | 21,2 | 18,4 | 13,5 | 17,1 | 19,2 |
| Valentziako E. | 32,7 | 35,8 | 36,0 | 36,0 | 35,6 | 32,1 | 31,5 | 31,6 | 33,1 |

Iturria: INE. EPA-2005 metodologia, eta urteko hiruhilabeteetako batez besteko datuak.



Rs5.2 grafikoa:

Autonomia Erkidegoetan ikasketak garaia baino lehen utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2006-2007.



Oharra: Eskola uztearen tasa txikienetik handienera ordenaturik.

* 2006tik aurrera, ikasketarik ez egiteko baldintzaren barruan aldi berean ikasketa arautuetako oporretan dauden eta ikasketa ez-arauturik egiten ez duten pertsonak (18-24) sartzen dira.


Iturria: INE. EPA-2005 metodologia, eta urteko hiruhilabeteetako batez besteko datuak.



Rs5.3 taula eta grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera Autonomia Erkidegoetan 2007an.

| | Bi sexuak | Gizonezkoak | Emakumezkoak |
|-------------------------|-------------|-------------|--------------|
| GUZTIRA | 31,9 | 38,0 | 25,7 |
| Andaluzia | 38,5 | 43,5 | 33,2 |
| Aragoi | 25,6 | 31,7 | 19,1 |
| Asturias | 19,7 | 26,4 | 12,8 |
| Balear Uharteak | 43,2 | 49,2 | 37,0 |
| Ceuta eta Melilla | 42,1 | 44,1 | 40,2 |
| Errioxa | 37,2 | 41,9 | 32,3 |
| Euskadi | 14,7 | 18,1 | 11,2 |
| Extremadura | 33,6 | 39,1 | 27,9 |
| Galizia | 24,1 | 32,2 | 15,8 |
| Gaztela eta Leon | 26,0 | 31,6 | 20,2 |
| Gaztela-Mantxa | 38,1 | 45,8 | 29,9 |
| Kanariak | 34,1 | 43,5 | 24,5 |
| Kantabria | 22,8 | 31,1 | 14,8 |
| Katalunia | 33,2 | 39,7 | 26,4 |
| Madril (Erkidegoa) | 26,9 | 32,4 | 21,4 |
| Murtzia | 41,0 | 49,7 | 32,1 |
| Nafarroa (F. Erkidegoa) | 19,2 | 23,9 | 14,4 |
| Valentziako E. | 33,1 | 38,2 | 27,8 |



Oharra: bi sexuen arabera ordenaturik.

Iturria: INE. EPA-2005 metodologia, eta urteko hiruhilabeteetako batez besteko datuak.



Rs5.4 taula:

Eskola uzte goiztiarraren bilakaera Europar Batasunean.

| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 |
|--------------------------|-----------------|-----------------|-------------|-----------------|-------------|-----------------|-------------|-------------|-------------|
| EB (27 herrialde) | 17,6 (e) | 17,2 (e) | 17,0 | 16,6 (b) | 16,1 | 15,8 | 15,5 | 15,1 | 14,9 |
| EB (25 herrialde) | 17,2 (e) | 16,8 (e) | 16,6 | 16,1 (b) | 15,7 | 15,5 | 15,4 | 14,9 | 14,8 |
| EB (15 herrialde) | 19,3 (b) | 18,8 (e) | 18,6 | 18,2 (b) | 17,7 | 17,5 | 17,3 | 16,9 | 16,7 |
| Alemania | 14,6 | 12,3 | 12,5 | 12,8 (i) | 12,1 | 13,5 (b) | 13,6 | 12,5 | 11,8 |
| Austria | 10,2 | 10,2 | 9,5 | 9,0 (b) | 9,5 (i) | 9,1 | 9,8 | 10,7 | 10,1 |
| Belgika | 13,8 | 13,8 | 14,1 | 14,3 | 13,1 (b) | 12,9 | 12,6 | 12,1 | 12,0 |
| Bulgaria | : | 20,5 | 20,7 | 21,9 | 21,4 | 20,4 | 17,3 | 14,9 | 14,8 |
| Danimarka | 11,7 | 9,2 | 9,0 | 10,4 (b) | 8,8 | 8,7 | 9,1 | 12,5 (b) | 11,5 |
| Erresuma Batua | 18,2 | 17,8 | 17,6 | 12,1 (b) | 12,1 (i) | 11,6 | 11,3 | 16,6 (b) | 17,0 |
| Errumania | 22,9 | 21,7 | 23,0 | 22,5 | 22,4 (b) | 19,6 | 17,9 | 17,3 | 15,9 |
| Eslovakiar Errepublika | : | : | 6,7 | 5,3 (b) | 6,8 | 6,3 | 6,6 | 6,5 | 6,0 |
| Eslovenia | : | 6,4 | 5,1 | 4,6 (u) | 4,3 (u) | 4,9 (u) | 5,6 | 4,1 (u) | 5,1 (u) |
| ESPAINIA | 29,1 | 29,7 | 30,7 | 31,6 | 32,0 | 30,8 (b) | 30,5 | 31,0 | 31,9 |
| Estonia | 15,1 | 14,4 | 13,2 | 12,9 | 13,1 | 13,4 | 13,5 | 14,4 | 14,0 |
| EUSKADI* | 14,7 | 14,7 | 13,2 | 15,8 | 13,4 | 14,5 | 14,5 | 14,3 | 14,7 |
| Finlandia | 9,0 (i) | 9,5 (i) | 9,7 (i) | 10,1 (i) | 10,0 (i) | 10,3 (i) | 9,7 (i) | 9,1 (i) | 9,8 (i) |
| Frantzia | 13,3 | 13,5 | 13,4 | 13,2 (b) | 12,8 | 12,2 | 12,4 | 12,6 | 11,8 |
| Grezia | 18,2 | 17,1 | 16,5 | 16,0 (b) | 14,7 | 13,6 | 15,5 | 14,6 | 14,8 |
| Herbehereak | 15,4 | 15,1 | 15,3 | 14,3 (b) | 14,1 | 13,5 | 12,6 | 11,7 | 11,4 |
| Hungaria | 13,9 | 13,1 | 12,2 | 12,0 (b) | 12,6 | 12,5 | 12,6 | 11,4 | 11,7 |
| Irlanda | : | : | 14,6 | 13,1 (b) | 13,1 | 12,5 | 12,1 | 11,6 | 11,3 |
| Italia | 25,1 | 25,9 | 24,2 | 23,0 | 22,3 | 22,0 | 20,6 | 19,7 | 19,7 |
| Letonia | : | : | 16,9 | 18,0 | 14,7 | 14,4 | 14,8 | 15,1 | 15,5 |
| Lituania | 16,5 | 14,9 | 13,4 (b) | 11,4 | 10,5 (b) | 8,1 | 8,2 | 7,4 | 7,4 |
| Luxemburgo | 16,8 | 18,1 | 17,0 | 12,3 (b) | 12,7 | 13,3 | 14,0 | 12,5 | 13,4 |
| Malta | 54,2 | 54,4 | 53,2 | 49,9 | 42,1 (b) | 38,9 | 39,9 | 38,3 | 39,0 |
| Polonia | : | 7,4 | 7,2 | 6,0 | 5,6 (b) | 5,3 | 5,4 | 5,0 | 5,0 |
| Portugal | 43,6 (p) | 44,2 (p) | 45,0 (p) | 41,2 (p) | 39,4 (p) | 38,8 (p) | 39,1 (p) | 36,9 (p) | 35,4 (p) |
| Suedia | 7,3 | 10,2 (b) | 10,0 | 9,2 (b) | 9,2 | 10,8 (b) | 12,4 (p) | 11,4 (p) | 11,1 (p) |
| Txekiar Errepublika | : | : | 5,7 | 6,5 (b) | 6,3 | 6,2 | 5,1 | 5,2 | 5,6 |
| Zipre | 18,5 | 17,9 | 15,9 | 17,3 (b) | 20,6 | 18,2 (b) | 14,9 | 12,5 | 13,7 |

(:) Ez dago eskuragarri

(b) Seriearen haustura

(e) Balio estimatua

(i) Kontzeptu eta definizio harmonizatuak aplikatzearen ondorioz, ezin da aurreko urtekoekin konparatu

(p) Behin-behineko datua

(u) Konparatze arazoak dituen datua


* Euskadiren kasuan, INE.EPA-2005 datuak

Iturria: EUROSTAT. (LFS - Europar Batasuneko Egitura Adierazleak).



Rs5.4 grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren bilakaera Europar Batasunean. 2004 eta 2008. urteak.



Oharra: Eskola uztearen tasa txikienetik handienara ordenaturik "2008. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. (LFS - Europar Batasuneko Egitura Adierazleak).



Rs5.5 taula:

Eskola uzte goiztiarra Europar Batasunean 2008. urtean sexuaren arabera.

| | Bi sexuak | Gizonezkoak | Emakumezkoak | Aldea |
|--------------------------|-------------|-------------|--------------|-------------|
| EB (27 herrialde) | 14,9 | 16,9 | 12,9 | 4,0 |
| EB (25 herrialde) | 14,8 | 17,0 | 12,6 | 4,4 |
| EB (15 herrialde) | 16,7 | 19,0 | 14,3 | 4,7 |
| Alemania | 11,8 | 12,4 | 11,2 | 1,2 |
| Austria | 10,1 | 10,4 | 9,8 | 0,6 |
| Belgika | 12,0 | 13,4 | 10,6 | 2,8 |
| Bulgaria | 14,8 | 14,1 | 15,5 | -1,4 |
| Danimarka | 11,5 | 13,7 | 9,2 | 4,5 |
| Erresuma Batua | 17,0 | 18,3 | 15,6 | 2,7 |
| Errumania | 15,9 | 15,9 | 16,0 | -0,1 |
| Eslovakiar Errepublika | 6,0 | 7,1 | 4,9 | 2,2 |
| Eslovenia | 5,1 (u) | 7,2 (u) | 2,6 (u) | 4,6 |
| ESPAINA | 31,9 | 38,0 | 25,7 | 12,3 |
| Estonia | 14,0 | 19,8 | 8,2 (u) | 11,6 |
| EUSKADI* | 14,7 | 18,1 | 11,2 | 6,9 |
| Finlandia | 9,8 (i) | 12,1 (i) | 7,7 (i) | 4,4 |
| Frantzia | 11,8 | 13,8 | 9,8 | 4,0 |
| Grezia | 14,8 | 18,5 | 10,9 | 7,6 |
| Herbehereak | 11,4 | 14,0 | 8,8 | 5,2 |
| Hungaria | 11,7 | 12,5 | 10,9 | 1,6 |
| Irlanda | 11,3 | 14,6 | 8,0 | 6,6 |
| Italia | 19,7 | 22,6 | 16,7 | 5,9 |
| Letonia | 15,5 | 20,2 | 10,7 | 9,5 |
| Lituania | 7,4 | 10,0 (u) | 4,7 (u) | 5,3 |
| Luxemburgo | 13,4 | 15,8 | 10,9 (u) | 4,9 |
| Malta | 39,0 | 41,7 | 36,1 | 5,6 |
| Polonia | 5,0 | 6,1 | 3,9 | 2,2 |
| Portugal | 35,4 (p) | 41,9 (p) | 28,6 (p) | 13,3 |
| Suedia | 11,1 (p) | 12,3 (p) | 9,9 (p) | 2,4 |
| Txekiar Errepublika | 5,6 | 5,8 | 5,4 | 0,4 |
| Zipre | 13,7 | 19,0 | 9,5 | 9,5 |

(i) Kontzeptu eta definizio harmonizatuak aplikatzearen ondorioz, ezin da aurreko urtekoekin konparatu

(p) Behin-behineko datua


(u) Konparatze arazoak dituen datua

* Euskadiren kasuan, INE.EPA-2005 datuak



Rs5.5 grafikoa:

Eskola uzte goiztiarra Europar Batasunean 2008. urtean sexuaren arabera.



Oharra. Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienara ordenaturik, "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. (LFS - Europar Batasuneko Egitura Adierazleak).